

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du; bigarrenean 0,6 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 750 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	40 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat** da.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

GOZO GUZTIAK BERDINAK EZ DIRELAKO

Gauza jakina da gastronomiak sekulako indarra duela Euskal Herrian. «Leku gutxitan izango dira inguruotan beste Michelin izar», dio Iñigo Odriozolak, Azpeitiako *Txintxu* gozotegiko arduradunak. Haren iritziz, bertako sukaldariak ospe handia duten arren, ez da gauza bera gertatzen gozogileekin. Sektore horren errealitatea azaltzeko, Inazio Egaña Azpeitiako *Egaña* gozotegiko nagusiak datu batzuk dauzka esku artean: «2000. urtean, esaterako, 35.000 gozo-denda zeuden Espainiako Estatuan, eta 2015ean, 15.000 baino ez zeuden». Hamabost urtean, 20.000 negozio itxi zituzten, beraz. Gipuzkoan ere antzekoa da joera. Argi dago: zerbait gertatzen ari da ofizio horrekin.

Ogia, opilak nahiz bestelako postreak sortzea dute ogibide, eta kezkatuta daude beren sektoreak azken urteotan izan duen gainbehera ikusita. Haiak bezala, asko dira gozogintzaren ofizioa duintzeko eta sustatzeko zerbait egin behar dela uste dutenak, eta ideia horri tiraka, duela bi urte hasi zen lehen pausoak ematen *Gozoa* Gipuzkoako artisau-gozogileen elkarteak. Gozogile artisauen lana bultzatu nahi du elkarteak, ez gozogile guztiena, eta horrek ere zerikusia du gaur egungo errealitatean gertatzen ari denarekin. Tradizioz, eskuz egindako lana izan da gozogileena, baina eremu horretan ere indarra hartzen ari da industria, eta gero eta gehiago dira lan hori makinaren bidez egiten dutenak. «Globalizazioa iritsi da sektore honetara ere: kate handiak, kanpotik ekarritako produktuak, industria... indarra hartzen ari dira, baita Gipuzkoan ere. Nortasunik gabeko gozogintza sustatzen ari dira», adierazi du Egañak.

Joera horri kontra egin nahi dio Gozoak, eskulangileen lana bultzatuta. «Jendeak makinek egindakoa eta eskulangileok egindakoa desberdintzea nahi dugu. Bertako eta kalitatezko elikagaiekin lan egiten dugu, *zero kilometro* filosofia sustatzen dugu, egunean eguneko masa sortu... Ez da gauza bera gozogile batek eskuz eta mimoz sortu duen opil bat edo makina batek egindakoa», dio Odriozolak. Pixkanaka pausoak ematea eta proiektuak martxan jartzea tokatzen zaie orain. Ideiak eta asmoak ez zaizkie falta. «Zenbait ikastaro antolatu ditugu, eta gozogintzari lotutako ikasketa arautuak sortzeko lanean ere ari gara», esan du Odriozolak. Izan ere, pedagogia-lana egitea beharrezkoa dela uste dute gozogileek, belaunaldi berriek ofizioa erakargarri ikusteko. Egañak dioenez, «Hori da ofizio honen gainbeheraren arrazoi nagusia: belaunaldien arteko transmisioa falta da». Odriozolaren arabera, jendeak uste du gozogileena oso lanbide sakrifikatua dela, goizean goiz lan egin behar izaten dutelako. «Dena den, lanbide honek gauza onak ere baditu. Ni, aurretik, mantentze-lanetarako arduraduna izan nintzen hainbat enpresatan, baina erritmoarekin itota, lan hori utzi eta gozogintzan hasi nintzen». Oso gustura dago egindako aldaketarekin. «Goiz hasi behar izaten dut lanean, baina arratsaldean mendi-buelta ederrak egiteko denbora izaten dut».

Elkartera osatuta, ogibidearekiko kezkek partekatu dituzte gozogileek, eta etorriko denaren lehen zimenduak ezarri ere bai. Eskulanaren bideari eutsiz jarraituko dute ofizioa sustatzen, pastel guztiak gozoak diren arren, denak berdinak ez direlako.

ELUSTONDO, I. *Berria*. 2021eko urtarrilaren 24a. Egokituta

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer dio testuak gozogintzaren sektoreaz?**
 - a) Euskal Herrian gozogileek sukaldariak besteko arrakasta dutela.
 - b) Gipuzkoan ez dela Estatuko joera bera ematen.
 - c) Espainiako Estatuan urte batzuetan negozio asko itxi direla.
2. **Zer helburu du Gozoa elkarreak?**
 - a) Gozogile guztien ofizioa duintzea eta sustatzea.
 - b) Eskuz diharduten gozogileen lana bultzatzea.
 - c) Gozogintza gaur egungo errealitatera egokitzea.
3. **Zer uste du Egañak sektorearen industrializazioaz?**
 - a) Globalizazioak eragin zuzena izan duela.
 - b) Gozogintza tradizionala indartu egin duela.
 - c) Makinek artisauen lana erraztu egin dutela.
4. **Zein da gozogintzaren gainbeheraren arrazoi inportanteena?**
 - a) Belaunaldi berriek ez dutela lan horretan aritu nahi.
 - b) Gozogintzari lotutako ikasketa arruntak falta direla.
 - c) Jendeak ez duela ofizioa behar bezala kontuan hartzen.
5. **Zer ondorio atera du testuak gozogintza tradizionalaz?**
 - a) Eskuz egindako lanak ezin izango diola aurre egin datorrenari.
 - b) Etorkizunari begira lehenengo pausuak eman direla elkararekin.
 - c) Denboraren poderioz pastel guztiak berdinak izango direla.

GOGORATU:
ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ADINEKOENTZAKO ZIRKUITUA

Adinekoen artean bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzeko xedez, Bizkaiko Sopelako Udalak Gernika plazan zirkuitu bat jarri du martxan, bertako auzokoek gorputza eta adimena **6**. Instalazio horiek estimulazio kognitiboa eta psikomotrizitatea hobetzeaz gain, harreman sozialak sortzea **7** duten hainbat joko eta ariketa dituzte.

8 diotenez, gaur egungo populazioaren bizi-itxaropena gero eta handiago da. **9**, ezinbestekoa da hirugarren adinekoei hiri-espazioak eskaintzea; garai horretan hasten baitira, hain zuzen ere, **10** kognitiboak eta fisikoak, eta oroimenaren eta abileziaren galera, **11**. Gauzak horrela, ariketa arinak eta buru-estimulazioak lagundu ahal diete dementziaren hasiera prebenitzen eta sintomak **12**, gaitasun kognitiboak hobetuz, sendotasun fisikoa eraikiz, konfiantza eta independentzia handituz eta isolamendu-sentimendua **13**. Zentzu horretan, azken urteotan Sopelako Udalak hamabi mila euro baino gehiago inbertitu ditu estimulazio aktibo eta fisikoko zirkuitu mota hauek **14**. Zirkuitu horiek, batetik, oroimena, kalkulua, hizkuntza eta arreta lantzen laguntzen dute eta, **15**, jarduera fisikoa egitea ahalbidetzen dute, muskuluen narriadura prebenitzeko eta koordinazioa, oreka, mugikortasuna eta indarra sustatzeko. **16** adimena lantzeko erabiltzen diren elementuei dagokienez, bikoteak osatzeko panelak, hiruko artzain-jokoa, zenbaki- eta letra-jolasak, egutegia (ariketa kognitiboa eta fisikoa egiteko) eta labirintoak jarri dira. **17**, ariketa fisikoekin lotutako panelei dagokienez, besoak lantzeko gurpil bat, bi pedal eta hanketarako eskaileratxo bat jarri dira.

Adin horretan oroimenaren galera arazo handia da, baina bakardadea da gizartearen beldur handienetako bat. Alde horretatik, garrantzitsua da **18** instalazio mota horiek gorputza eta burua lantzen laguntzen dutela eta parte-hartzaileen arteko gizarte-harremanak ere sustatzen dituztela. **19**, ingurune natural batean daudenez, erabiltzaileek helburu bera duten beste pertsona batzuek **20** egiten dute ariketa, bakardadeari aurre eginez eta zahartze aktibo eta osasungarria sustatuz.

Sopelaren kasuan, **21**, «instalazioak Gernika plazako jolas-eremuko haur-parkearen ondoan jarri dira, erabiltzaileek umeekin ariketa kognitiboak egiteko aukera izateko eta belaunaldi ezberdinen arteko **22** gainditzeko» adierazi du Sopelako alkateak. Frogatuta dago belaunaldien arteko jardueretan parte hartzen duten adineko pertsonak **23** sentitzen direla. Egunean zehar hurrekin denbora partekatzeak jarduera fisikoa, kognitiboa eta soziala **24** gain, haien oroimena, kontzentrazioa eta arreta handitzen ditu, eta depresioaren sintomak gutxitu. Halaber, umeei, elkartruke horrek **25** eragiten dizkie hezkuntzan eta gizarte-harremanetan.

<www.sopelaudala.org> Egokitua

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) behartzeko
b) zuzentzeko
c) trebatzeko
d) ahultzeko

7. a) jasaten
b) errazten
c) ezkutatzen
d) gaitzesten

8. a) Eskaintzek
b) Eragiketek
c) Estatistikek
d) Eskabideek

9. a) Hortaz
b) Bestela
c) Ordea
d) Adibidez

10. a) gogoeta
b) harrera
c) onura
d) gabezia

11. a) besteak beste
b) bide batez
c) batez beste
d) behin batez

12. a) ordezkutzen
b) zorrozten
c) kudeatzen
d) irauten

13. a) baliatuz
b) murriztuz
c) sakonduz
d) bermatuz

14. a) galarazteko
b) agerrarazteko
c) geldiarazteko
d) abiarazteko

15. a) bestetik
b) esaterako
c) berriz
d) lehenik

16. a) Baina
b) Harrezkero
c) Zehazki
d) Orduan

17. a) Bestalde
b) Horrela
c) Berez
d) Horregatik

18. a) ezeztatzea
b) berritzea
c) izenpetzea
d) nabarmentzea

19. a) Dena den
b) Izan ere
c) Behintzat
d) Antza denez

20. a) ordezkatuta
b) banatuta
c) menderatuta
d) inguratuta

21. a) gainera
b) ostera
c) jakina
d) bada

22. a) keinuak
b) lehiak
c) erronkak
d) hesiak

23. a) arduratsuago
b) zoriontsuago
c) berritsuago
d) adimentsuago

24. a) agortzeaz
b) moteltzeaz
c) areagotzeaz
d) oztopatzeaz

25. a) eragozpenak
b) hobekuntzak
c) burutazioak
d) hutsuneak

GOGORATU:
ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartuta, **iritzia** eman behar duzu **herriko aldizkarian**, *Herritarren txokoa* sailean.
Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udalak herrian erabiltzen ez den futbol-zelaiari erabileraren bat eman nahi dio.

Bi egitasmo ari da aztertzen: herritarrek alokatu ahal izango dituzten hiri-baratzeak egitea edo herritarrek alokatu ahal izango dituzten autoa aparkatzeko partzelak egitea.

Herriko aldizkarian iritzia ematea erabaki duzu.

Esan zein egitasmo iruditzen zaizun egokiena eta zergatik.

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1. ariketa. aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «GOZO GUZTIAK BERDINAK EZ DIRELAKO»

1.	C	2.	B	3.	A
4.	A	5.	B		

- 2. ariketa. hutsuneak bete.
- Irakurgaia: «ADINEKOENTZAKO ZIRKUITUA»

6.	C	7.	B	8.	C
9.	A	10.	D	11.	A
12.	C	13.	B	14.	D
15.	A	16.	C	17.	A
18.	D	19.	B	20.	D
21.	A	22.	D	23.	B
24.	C	25.	B		